


# HISTORIAURREA 17

## ZER IKASI GENUEN HISTORIAURREARI BURUZ INSTITUTUAN?



Lierni Estefania Herrero

Historiako Gradua

2018/2019 ikasturtea

Naroa Garcia Ibaibarriaga

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia saila

## Laburpena

Lan hau 1867tik 2017ra bitarteko Bigarren Hezkuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait testu-liburuen azterketa da, ikas-material hauetan historiaurre gaiak duen presentziaren bilakaera azalertzeko asmoz. Horregatik, lana ez da liburuen (formatu eta edukiaren) azterketa soil bat burutzera mugatuko, baizik eta azterketa hau, historiaurrearen baitan emandako berrikuntza eta aurrerapen zientifikoekin erlazionatzen saiatuko gara. Modu honetan, testu-liburuen eguneratze-maila ezagutu ahal izango dugu.

Hasteko, liburuak banaka aztertu ditugu, bakoitzean historiaurreari eskainitako orrialdeak behatuz eta datuak bilduz. Banakako analisisia hiru garaitan banatu dugu: Isabel II.aren erreginalditik Errepublikara (1833-1936), Frankismoko urteak (1939-1975) eta Trantsiziotik gaur egun arte (1975-2017). Atal hauetako bakoitzean, ikas-material hauei dagokien testuingurua marraztu dugu, historiaurre gaiaren inguruko aurrerapenak aipatuz (aztarnategien aurkikuntza, ikerlari eta erakunde ezagunak eta aurrerapen zientifikoak eurak, noski). Lehen zati honetan, historiaurrearen lanketak pixkana hobera egiten duela esan dezakegu (Frankismo garaiko salbuespenak kenduta): kreaionismoaren eta Bibliaren ideien nagusitasunetik, historiaurre askoz zientifikoago batera.

Ikerketaren bigarren zatian, liburuen arteko konparaketa bat gauzatu dugu elementu zehatz batzuk oinarritzat hartuta (historiaurrearen atalean atxikitako irudiak, emakumearen presentzia, historiaurrearen kronologia). Puntu honetan, historiaurrearen lanketan eragiten duten alderdi batzuen analisi indibiduala egin nahi izan dugu, garapen hori gertuagotik ezagutzeko asmoz. Honela, kronologiaren kasuan hobekuntza nabari bat sumatzen den bezala (hipotesietatik, datazio sistema desberdinetan oinarritutakoetara), ezin dugu halakorik esan emakumearen presentziari dagokionez, historiaurrearen baitan emakumezkoak jasaten duen ikusezintasuna eta aurre-irritziz beteriko irudia agerian geratzen delarik (bai testuetan eta bai baliabide grafikoetan).

Lanaren azken atala ondorioen azalpenari dagokio. Lehenik eta behin, historiaurrearen lanketa eta momentuko testuinguru hertsiki elkar-lotuta daudela argi geratu da lanean zehar. Historiaurrearen presentzian zentratuz, oro har, bilakaera

positibo batez hitz egin dezakegu, bai edukiari eta bai formatuari (azaldutako baliabide grafikoei, euskararen erabilpenari) dagokienez. Hala ere, hobekuntza orokor honen atzean, badira joera honi jarraitzen ez dioten alderdi batzuk: haien artean esanguratsuena emakumeei dagokiena da, kasu honetan, aipamenen kopurua igotzeaz aparte, apenas nabaritzen baita aldaketarik aztertu diren ikas-materialetan (gehienbat, emakumearen presentziak duen izaeraren kasuan).

## Aurkibidea

1.	Sarrera.....	4
2.	Metodologia.....	5
3.	Liburuen banakako azterketa.....	8
3.1.	A, B, C eta D liburuak.....	8
3.2.	E, F eta G liburuak.....	12
3.3.	H, I, J eta K liburuak.....	17
4.	Liburuen azterketa konparatiboa.....	24
4.1.	Irudien kopurua eta motak.....	24
4.2.	Historiaurrearen kronologia.....	26
4.3.	Emakumeari buruzko aipamenak.....	28
5.	Ondorioak.....	30
6.	Bibliografia.....	32
7.	Eranskinak.....	34

## 1. Sarrera

Komunikabideen eskutik historiaurrearen alorrari dagozkion hainbat eta hainbat albiste ezagutu berri ditugu: duela 160.000 urteko denisovar baten fosila Txinan, duela 67.000 urte bizitako *Homo luzonensis* izeneko hominido berri baten aztarnak Filipinasen, K.a. 3.000an datatutako maskor batzuen agerpena Sevillako *La Molina* aztarnategian (Europa mailako historiaurreko lehen imitaziozko bitxiak bezala kontsideratu direnak) edota Ekaingo leize-zuloan lau zaldi berriren grabatuen topaketa. Hauek dira azken hilabeteetan egin diren aurkikuntzetako batzuk, zalantzarik gabe, historiaurrea etengabe eraldatzen eta berritzen ari den zientzia dela frogatzen dutenak.

Nola islatzen da ordea garapen hau eskola liburuetan? Zein puntutaraino islatzen dira aurkikuntza berriak? Testu-liburuen eguneratze-maila ezagutzea funtsezkoa da historiaurreak gure eskola liburuetan izan duen bilakaera ikertu nahi badugu, are gehiago, liburu hauek ondorengo generazioen formakuntza egokian duten esangura kontuan izaten bada. Sarritan, nahita ala nahi gabe, ikas-materialek historiaurrearen irudi lausoa edo okerra argitaratzen dute, gaur egunean bizitzeak dakartzan aurre-iritzi eta pentsamoldeak baldintzatuta, ziurrenik. Zentzu honetan, ezinbestekoa zaigu emakumezkoa aipatzea, bera baita “ikuspegi gaurkotu” honen eragin negatiboenak jaso dituen. Ondorioak ez dira soilik aztergai ditugun testu-liburuetan azaleratzen, ezta gutxiago ere, gertuen dugun arkeologia museora hurbildu besterik ez baitugu egin behar, emakumeak historiaurrearen alorrean duen presentzia eskasa eta aurre-iritziz betea frogatzeko.

Edonola ere, esku artean dugun lanak ikas-materialak ditu hizpide eta haien inguruan mintzatuko gara, beraz. Helburua ondorengoa litzateke: Bigarren Hezkuntzako testu-liburuetan historiaurreak izan duen garapena aztertuz, liburu hauen eguneratze-maila eta arloari buruz egindako lanketa nolabait neurtzea. Era honetara, azken urteotako gazteriari historiaurrearen ikasgaiari eskaini zaion prestakuntza ezagutu ahal izango dugu, bide batez, gazte hauen hezkuntzan, lehen gizakien historia ahalik eta osoena atxikitzearen garrantzia azpimarratzeko aukera dugularik.

## 2. Metodologia

Sarreran esan bezala, lana gauzatzeko, Bigarren Hezkuntzako testu liburuak hartu dira ikergaitzat. Honela, 1867tik gaur egun arteko eta EAE-n erabilitako Bigarren Hezkuntzako hainbat eskola-libururen azterketa gauzatu da, bertan historiaurreari ematen zaion lanketa ezagutzeko. Aldi berean, beste zenbait gai jorrazteko aukera eskaini digu lanak: historiaurrearen alorrean emandako aurkikuntza eta berrikuntza desberdinen aipamena edota ikas-materialen euren bilakaera (historiaurrearen ikasgaiari dagozkien irudien erabilera, emakumeei eskainitako arreta edo kronologiak berak izan duen garapena). Jarraian, ikerketa-lan hau osatzeko eman diren pausoak argituko ditugu.

Ezertan hasi aurretik, historiako testu-liburuak ikertu dituzten adituen artikulua kontsultatu dira, lanaren izaera eta norabidea definitzeko laguntza gisa. Ondoren, ikertu nahi ziren liburuen hezkuntza-maila hautatu da, kasu honetan, Bigarren Hezkuntza. Honela, lehen erabakia Bigarren Hezkuntza kontzeptuari dagokion eremua mugatzea izan da, izen hori, adin eta ikas-maila ezberdinei egokitu baitzaie urteetan zehar<sup>1</sup>. Behin hau egin eta gero, testu-liburuen bilatze lanari ekin zaio, antikuari, ikastetxe, liburutegi eta interneten bidez 20 liburu baino gehiago lortu direlarik. Hauetan zaharrena 1867koa, eta berriena, berriz, 2017koa.

Bilduma osatu eta liburuak kronologikoki antolatu ondoren, 11 hautatu (lan honen luzera eta denbora mugak kontuan izanik) eta hauek garaika sailkatu dira bakoitzaren azterketa bideratu ahal izateko. Horretarako, hiru garai definitzea erabaki da (egoera politikoa eta Hezkuntza Legeen arabera): Isabel II.ren erreginalditik Errepublika arte (1833-1936), Frankismoa (1939-1975) eta Trantsiziotik gaur egun artekoa (1975-2017). Lehen atalerako lau liburu aukeratu dira, bigarrenerako hiru eta azkenerako beste lau.

---

<sup>1</sup> “Moyano” Legearen arabera, 10 urterekin hasten zen Bigarren Hezkuntza; “Villar Palasi” Legeak ezarritako “Oinarrizko Hezkuntza Orokorra” indarrean dagoen bitartean, Lehen Hezkuntza 14 urterekin amaitzen zen eta gaur egun Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 12 urterekin hasten da.



1. irudia: aztertutako 11 liburuen argazkia, bakoitzari dagokion letrarekin. Iturria: norberak egina.

Liburuen analisisa gauzatzeko, hauei gain-begirada bat eman eta gero, lehenengo pausoa, taula bat diseinatzea izan da, liburu bakoitzaren alderdi ezberdinak aztertu eta jasotzeko. Hainbat saiakeren ondoren, datu hauek jasotzea erabaki da: aipamen bibliografikoa, ikaslearen adina eta maila, historiaurreari buruzko gaien kokapena eta eduki nagusiak, irudi eta bestelako baliabideak (mapak, diagramak, ardatz kronologikoak...), euskal ondarearen aipamenak, ikasleei proposatutako jarduerak eta bestelako oharrak. Gero, taula hauetako bakoitzean jasotako informazioa oinarritzat hartuz, liburu bakoitzeko iruzkin bat osatu da, zeina, atal honetan atxiki den. Horrez gain, garai bakoitzari dagokion testuinguruaren laburpen txiki bat burutu da, bibliografia gehigarria erabiliz, bereziki historiaurrearen alorrean emandako aurkikuntzak eta aurrerapenak aintzat hartuz.

Historiaurrearen alorraren lanketak testu-liburuetan izandako bilakaera modu sakonago batean aztertzeko, liburuen arteko azterketa konparatiboa osatu da, historiaurrearekin erlazioa duten elementu zehatzak kontuan izanik. Honenbestez, gure ustetan, historiaurrearen bilakaera ikertzeko orduan zeresan edo esangura handiena izan dezaketen konparaketa irizpideak aukeratu ditugu atal honetarako: irudiak, historiaurrearen kronologia (lehen giza-aztarnei jarraiki) eta emakumearen presentzia. Elementu hauen inguruko hausnarketa ulerterrazagoa egiteko, bildutako datuak taula eta grafiko desberdinen bidez txertatu dira.

Ikerketaren amaiera gisa, arestian bildutako datu guztien inguruan hausnartuz, bukaerako ondorioak idatzi dira, hots, eskola liburuen azterketaren emaitzak eta noski, hasieran planteatu dugun hipotesiaren baliagarritasuna. Azkenik, bibliografiaren segidan eranskin batzuk gehitu dira, non, aztertutako liburuetako batean agertzen den errepresentazio baten iruzkina eta historiaurrearen arloan emandako aurrerapen zientifiko zein aurkikuntzak biltzen dituzten hainbat taula txertatu diren.




### 3. Liburuen banakako azterketa

#### 3.1. A, B, C eta D liburuak<sup>2</sup>

Liburuen analisia:

#### A: Compendio de Historia Universal y particular de España (Cortada, 1867)



2. irudia: A liburuaren izenburua.  
Iturria: norberak egina.

Esku artea izandako eskola liburuen artean orrialde gehien dituen liburua da. Paradoxikoki, ez zaio historiaurrearen alorrari orrialde bakar bat ere eskaintzen, liburua Antzin Aroarekin batera hasten baita<sup>3</sup>. Honela, bertan jasotzen den lehenengo gertakizuna Asiriako inperioaren sorrera da, K.a. 1993 urtean kokatua. Testua da nagusi barnean, inolako irudirik gabe.

#### B: Historia Universal (Zabala, 1908)

Liburu hau da, ikertutakoen artean, historiaurrearen alorra lehen aldiz txertatzen duena, zehazki, IV. gaian (*Prehistoria y plan de la Historia Antigua*). Guztira, 20 orrialde eskaintzen dizkio atal honi. Letra txikiko testuan zehar, grabatu eta eskemak tartekatzen ditu<sup>4</sup>. Amaieran, laburpen motz bat gehitzen da, puntu garrantzitsuenak azpimarratuz.


<sup>2</sup> Irakurterrazagoa izan dadin, liburu bakoitzari letra bat esleitu zaio, hemendik aurrera liburuari erreferentzia egiteko erabiliko dena, izenburuaren edo egilearen ordez.

<sup>3</sup> Antzin Aroaren hasierari dagokionez zera dio: “ (...) comienza con el mundo (...) ” (Cortada 1867: 8), eta aurrerago idazten da: “La Historia antigua, que abraza cincuenta y tres siglos (...) ” (Cortada 1867: 8). Hau dena, Biblian oinarritutako zenbaketa baten ondorio da.

<sup>4</sup> Ez da grabatu horietako bakar baten identifikazioa egiten, egile eta irudiaren azalpen orokor bat atxikitzen duten oin oharrak erabiltzen direlarik.

Hasierako gaien funtzioa sarrera gisa aritzea da, bertan, historia alorraren edota arrazaren eztabaidaren inguruko hausnarketa bat egiten baita (zer da zehazki historia, zein da bere balioa ikasgai moduan, “arraza” hitzaren definizioa eta garrantzia<sup>5</sup>...), era berean, garai historikoen zehaztapen bat ere egiten delarik. Historiaurreari dagokionez, bai definizioan eta bai kronologian, datu faltak eragindako zehaztasun eza nagusi dela jasotzen du, garai geologikoak eskema bidez argitu eta bi aro bereizten ditu: Harri eta Metal Aroak (eta hauen azpiatalak, Paleolito/Neolitoa eta Brontze/Burdin Aroak). Bibliaren kontakizuna ageri da gizakiaren sorrera azaltzeko eta *Canstadt* eta *Cro-Magnon* arrazak aipatzen ditu.

## C: Historia de la Civilización Española (Ballester, 1928)



**3. irudia: C liburuaren orrialdea, Altamirako bisontearen argazkiarekin. Iturria: norberak egina.**

Hirugarren eskola liburu honen izenburua adierazgarria da, historiaren kontzeptu zabaltze bat jasotzen duelako, ohiko hitzaurrean agertzen dena<sup>6</sup>. Hasierako kapituluak eskaintzen dio historiaurreari, soilik sei orrialde dituen (liburua bera aurreko biak baino dezente motzagoa da). Bi aurkibide desberdin txertatzen dira, bata, ikasgaien zerrenda azaltzen duena, eta bestea, liburuan zehar agertzen diren grabatuena<sup>7</sup>. Lehenengo txuri-beltzeko argazkiak azaltzen dira, historiaurrearen atalean hiru zehazki: Altamirako bisontea, Cueva de la Viejako margoak eta Mallorcako “talayot” bat. Bestalde, kapitulu bakoitzaren amaieran, historiaren alorrean

<sup>5</sup> Kontzeptu honi arreta nabarmena eskaintzen zaio eta honen adibide da, lehen gizakiez aritzean, “espezie” hitzaren ordeaz, “arraza” erabiltzen dela: *Canstadt* (Europako zaharrena izango litzatekeena), *Cro-Magnon* eta *Furfooz*, hain zuzen.


<sup>6</sup> Aldaketak honetan datza: datu kronologikoen bilduma soil bat izatetik, “Historia de la Civilización” ideia pasatzea, hots, historia gertakizun politiko-militar esanguratsu batzuetara mugatu beharrean, zibilizazioa bere osotasunean lantzen saiatzen den zientzia bat bilakatzea.

<sup>7</sup> Bigarren zerrenda honetan, grabatu bakoitzaren inguruko azalpen txiki bat egiten da, baina ez da iturriari edo egileari buruzko deus aipatzen.

argitaratutako hainbat libururen inguruko bibliografia atxikitzen da (besteren artean, Hugo Obermaier-en *El hombre fósil*), ikasleak kontsultarako erabil dezan.

Edukiaren aldetik, nagusiki Espainiari dagokion informazioa lantzen da liburuan. Estatu mailan topatutako aztarnen inguruan, Behe Paleolitoko bi fosilen aipamenak jasotzen ditu (Gibraltarreko buru-hezurra eta Bañolaseko matrail hezurra), bi labar arte mota sailkatzen ditu ("*francocantábrica*" eta "*capsiense*") eta "*raza pirenaica*" delakoa aipatzen du euskaldunen balizko jatorri moduan.

**D: Curso de Historia para la Segunda Enseñanza (Aguado, 1934)**



**4. irudia: D liburuaaren pare bat orrialde. Iturria: norberak egina.**

Aztertutako liburuetatik historiaurrearen atalean maila zientifikorik altuena erakusten duen liburua da. II.-V. atalen bitarteko guztiak historiaurrearen alorrean zentratzen dira<sup>8</sup>, sakontasun eta zehaztasun handiagoarekin idazteko parada eskainiz. Kapitulu bakoitzaren hasieran, jorratuko diren atalen zerrendatxo bat eskaintzen da, aurkibide txiki gisa. Lantzen diren puntuen ugaritasuna dela eta, adierazgarrienak egin

<sup>8</sup> Izan ere, garaiko ezagutza guztiaren sintesia jaso nahi baita.

zaizkigunak ekarri ditugu azterketa honetara, Errepublika garaiko eskola liburu honen maila gorena agerian uzteko balio dutenak:

- Historiaurreko garai desberdinen arteko mugak zehazteko dituzten arazoak.
- *Mauer*-eko matrail-hezurra giza-aztarnarik zaharrena bezala agertzen da (artean ez dakite *Homo heidelbergensis* espezieari dagokiola).
- Kuaternarioko fauna, flora eta geologiaren inguruko zenbait xedapen.
- Historiaurreko gizakiaren bizimoduari (bai eta ezaugarri artistiko eta “ideologikoagoi”) eskusiboki eskainitako hainbat orrialde.
- Paleolitoak Espainia mailan izandako presentziari buruzko kapitulu oso bat eta eremu geografiko berebean, Neolitoak izandako eragina jorratzen duen beste kapitulu bat<sup>9</sup>.
- Emakumeari eta euskal ondareari egindako erreferentzia ugari daude.
- Testuekin batera, hainbat irudi, mapa eta argazki agertzen dira, bakoitzaren alboan, hausnarketa gehigarri bat aurkezten delarik, ohiko zenbakitze eta azalpenarekin batera.
- Argazki eta grabatuen artean, *Altamira*-ko labarretako artearen aipamen berezia azaltzen da, Obermaier-ek egindako grabatu batzuez gain.
- Oin ohar asko ageri dira, ikertzaile eta historialari anitzen obrak aipatuz.

Historiaurreari dagozkion aurrerapen zientifikoak:

XIX. mendearen erdialdean hasten da garatzen historiaurrea modu askoz zientifikoago batean, hots, historiaurrea zientziaren eremuko alor bat bezala kontsideratzen. Ordura arte, historiaurrea mitologiaren eta tokian-tokiko kontakizun eta tradizio desberdinekin lotzen da (megalitoak, kobazuloetan topatutako margoak). Ez dira antzinako gizakiekin erlazionatzen eta kondaira desberdinak elikatzeko erabiltzen dira: Erroldan Arriya (Aralarren), Maitagarrien orratzak (Frantzia) edo *Devil's Eye* (Britainia Handian).

---

<sup>9</sup> Dena dela, liburu honen ezaugarri interesgarrietako bat, atzerriko aurkikuntza eta aztarnategi desberdinekiko egiten dituen loturak dira: Frantziako *Mas d'Azil*-eko uharrak margotuak, Amerika Borealean eta Australian topatutako bi lurperatze bitxiren grabatu bana...

Egiten diren aurkikuntzak, ausazkoak izaten dira, tamaina handiko aztarnak (ohiko paisaian nabaritzen zirenak<sup>10</sup>) edota aspaldiko haitzulo batean abentura bila sartzerakoan kausalitatez agertzen diren margoak. Egiten diren aurkikuntza apurrak, ikerlari amateur eta bildumagileen eskutik iristen dira eta beraz, aztarna arkeologiko horien tratamendua ez da egokia izango<sup>11</sup>.

XIX. mendea mugarri da beraz, orduan hasten baitira garatzen alor honen oinarriak zientzia gisa, batez ere Europan. Hastapen hauetan zehar, berebiziko garrantzia izango dute giza espeziearen eta lurraren antzinatasunaren inguruan burututako hainbat aurrerapenek. Horregatik, gure ustetan esanguratsuenak iruditu zaizkigunak biltzen dituen pare bat taula atxiki dira eranskin moduan: lehenak (2. eranskina), Europa mailan emandakoak agertzen ditu, bigarrenak aldiz (3. eranskina), Espainiar estatuan gauzatutakoak.

Europatik kanpo, 1880an, “gizon amerikarraren” auziak eztabaida sortuko du Amerikako biztanleen jatorriaren inguruan. Halaber, 1891an, Javan, *Pithecanthropus erectus* edo *Java Man* ezaguna topatzen da (Batzuen artean, 1989). Biek ala biek, “*Homo*” espeziearen aztarnak Europatik at kokatzea suposatzen dutenez, migrazioen inguruko teoriak indar handia hartuko dute momentu honetan.

### 3.2. E, F eta G liburuak

Liburuen analisisia:

#### E: Geografía e Historia (Castro, 1941)

Liburu hau bi zatitan banatuta dago: lehen 134 orriek geografiaz hitz egiten dute eta 295era bitartekoek, berriz, historiaz. Bigarren zati honetako hasieran lantzen da historiaurrea. Ondorengo informazioa azaltzen da bertan:

---

<sup>10</sup> Esaterako, Aizkomendiko trikuharria, Espainia mailan topatutako lehena (1832). Garaiko giroaren adierazgarri ezin hobea da berau, hilobi zelta bat dela pentsatuko baitute hasieran. Gainera, trikuharriaren harrietako batzuk obra baterako hartuko dituzte gerora.

<sup>11</sup> Lapurretak, aztarnen leku aldaketak eta antzerakoak ohikoak izango dira garai honetan. Ondorioz, informazio eta ondare pila galduko da.

- Paleolitoaren barne-banaketa azalpena eta Behe eta Goi-Paleolitoko kulturen aipamena.
- Labar artearen barnean dauden estilo nagusien konparaketa.
- Neolitikoak ekarritako aldaketen artean bizimoduan gauzatzen denari ematen zaion garrantzia.
- Hala ere, ez ditu ez aztarnategi, ez ikerlari garrantzitsuenak, ezta kronologia ere aipatzen, Metal Aroaren erreferentzia salbu.
- Giza-eboluzioari dagokionez, Neanderthalak eta Cro-Magnon gizakia aipatzen ditu bakarrik, lehena zaharrena bezala identifikatuz.

### F: Historia Universal y de España (Arenaza-Gastaminza, 1960)

Liburu honen aldaketarik adierazgarrienak, kolorearen agerpena, ariketa praktikoko baten txertaketa eta lehen eszenen errepresentazioak ditugu. Kolorearen erabilpena da beraz, elementu garrantzitsuenetako bat, grabatuetan, azpi-gai desberdinen izenburuetan eta batez ere, eszenen errepresentazioan topatuko duguna. Eszenetan agertzen diren gaien artean, suaren aurkikuntza edo haitzulo bateko bizimodua ditu adierazgarrienak, guztietan, gizonezkoaren presentziak lehenetsuta duelarik emakumezkoarenaren gainetik.

Edukiari dagokionez:

- Mesolito garaia lehen aldiz aipatzen da, baita *Homo heilderbergensis* eta *Homo sapiens* espezieak ere.
- Europatik at egindako aurkikuntzen antzintasuna jasotzen du.
- Obermaier-en ideien inguruko erreferentziak egiten ditu.
- Aurreko liburuek ez bezala, aztarnategi ugariaren aipamenak txertatzen dira (haien artean, Aizkomendiko trikuharriarena).
- Paleolito eta Neolito Aroko kultura nagusiek Iberiar Penintsulan izandako banaketa azaltzen duten mapak atxikitzen dira, aztarnategi nagusienekin batera.

5. gaiaren bukaeran (*El despertar histórico del Mediterraneo*), errepasorako irakurketak, denbora pasak eta galdetegi motzak txertatzen ditu landutako gai guztien

informazioa baliatzeko, horien artean historiaurrekoak. Bertan agertzen den irakurketan ordea, Biblia erabiltzen da lehen gizakiaren sorrera azaltzeko, orduko teoria zientifikoen gainetik kristautasunaren interpretazioa gailenduz:

“ (...) el hombre apareció sobre la Tierra, tal vez hace medio millón de años, (...), que el lugar de su aparición estuvo, probablemente, en Asia y que, no obstante la diversidad de razas humanas, fósiles y actuales, todos los hombres proceden de una sola pareja primitiva, la de Adán y Eva de la Biblia” (Arenaza-Gastaminza, 1960: 30).



5. irudia: F liburuaren bi orrialde, non, kolorearen eta eszena errepresentazioen garrantzia agerikoa den. Iturria: norberak egina.

G: Demos I. Historia Universal Antigua y Media (Ortega-Roig, 1972)

Kasu honetan, datu bilketa soil batetik haratago, azalpen arrazoituek lehenetsuna duten liburu baten aurrean gaude. Gainera, Errepublikako liburuak ez bezala, irakurleen adina kontuan hartzen du, liburu zientifiko eta eskola liburu didaktikoaren arteko oreka lortuz.

Formatuaren alorrean, txuri-beltzean dauden argazkiek protagonismoa berreskuratzen dute eszena errepresentazio eta marrazkien aldean<sup>12</sup>. Hauek azalpen dotoreak dituzte, luzeak eta onak. Aipatzekoa da liburuak eranskin bat ekartzen duela berarekin, ikasleei zuzendutako ariketa liburuxka bat eta mapa mutu bildumarekin.

<sup>12</sup> Kolore urdina, soilik azpi-titulu eta argazkien atzealdea azaltzeko erabiltzen da.

Ariketa bakoitza mapa mutu batekin erlazionaturik dago, adibidez: aztarnategien kokapena bilatzea, labar artearen ezaugarriak gogoratzea...

Historiaurrearen atalean agertzen den edukiaz, esan:

- Lehen aldiz kronologia nahiko zehatza azaltzen da eskema baten bidez.
- Afrikako hegoalde eta ekialdean egindako fosilen aurkikuntzak aipatzen ditu, *Australopithecus* espezie berriari dagozkionak (*Oldoway Man*; Tanganika).
- Europan, Asian eta Ipar Afrikan topatutako *Pithecanthropus*-en fosilak ere azaltzen dira.

Hortaz gain, Gordon Childeren “*Revolución Neolítica*” ideari erreferentzia egiten zaio. Childek, historiaurrearen bilakaeran tresneriak eta teknologiaren eraldaketak izan duten lehentasunaren gainetik, aldaketa sozio-ekonomikoen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen (nekazaritza, zeramika, animalien etxekotzea, gurpilaren asmakuntza...). Haren ildoari jarraituz, hala dio liburuak:

“Daos cuenta ahora, de que el hecho de que supiera además pulimentar sus utensilios de piedra, tiene poca importancia” (Ortega, Roig, 1972: 13).

Hortaz, aldaketa sozio-ekonomiko hauek agertzen dira historiaurrearen (eta historiaren) bilakaeraren motor gisa, eurak dira teknologia eraldatzen dutenak eta ez alderantziz. Amaitzeko, “Nekazaritza Iraultzaren” teoriarekin lotuta, emakumezkoaren inguruan egindako aipamen bat aurkitzen dugu:

“Quizá fue la mujer, menos apta para la caza, la que advirtió el valor alimenticio del trigo, el centeno o el maíz, y que sembrando algunos granos nacían nuevas plantas” (Ortega, Roig, 1972: 13).

Historiaurreari dagozkion aurrerapen zientifikoak:

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, historiaurrearengan berebiziko eragina izango duten aurrerapen zientifiko nabariak gauzatzen dira alor ugaritan (Geologia, Palinologia, Arkeologia, Fisika eta Kimika, Antropologia, Biologia). Haietako batzuk



6. irudia: G liburuaeren orrialde bat. Iturria: norberak egina.



azaltzearen, eranskinetan aurrerapen hauetako batzuk biltzen dituen taula atxiki da (4. eranskinean, hain zuzen). Halaber, aipamena merezi dute bi ikerlari frantziarrek, ekarpen handiak gauzatuko baitituzte historiaurrearen alorrean: batetik, Bordesek, “facies” sistema ezagunari<sup>13</sup> bultzada emango dio, Mousteriar Aldiko harrizko tresneria “facies” hauen arabera sailkatuz; bestetik, Laplacek, Bordesen planteamenduaren kontra egiteaz gain, Gatzarria, Isturitz eta Oxocelhaya leizeak induskatu ditu (Batzuen artean, 1989).

Espainiara itzulita, atzerapen nabarmena jasaten du historiaurreak diktadurak irauten duen hamarkadetan. Alde batetik, Gerra Zibilera arte gauzatutako aurrerapen metodologikoak (Barandiaran, Aranzadi eta Egurenen lana, esaterako) atzean geratzen dira. Nagusiki, aditu guzti hauek atzerrira ihes egin behar izan dutelako, erregimen frankistaren errepresiotik babestuz. Beste aldetik, ikerlari hauek ordezkutzen dituztenek ez dutelako hutsunea tapatzeko adina ezagupen eta prestakuntzarik. Izan ere, indusketetan eta arkeologiako erakunde berrietan (*Consejo Superior de Investigaciones Científicas* (CSIC), 1939; *Comisión General de Excavaciones*<sup>14</sup>) arituko direnak erregimenaren aldeko jendea izango dira (Estévez, Vila, 2008). Hitz gutxitan esanda, ez dituzte lanpostuak bakoitzaren prestakuntzaren arabera esleituko, baizik eta erregimenarekiko duten atxikimenduaren eta fideltasunaren arabera. Azken finean, helburua ez da arkeologian eta historiaurrearen inguruan ezagupenak zabaltzea, erregimenaren aldeko arkeologia bat egitea baizik. Horregatik, garai honetan egindako indusketetan topatutako aztarnak ez dute behar-bezalako tratamendua jasoko eta informazio anitz galduko da. Hala ere, badira aipatu beharreko zenbait aurrerapen, 5. eranskinean azaltzen direnak.

Erregimenaren amaiera ailegatu ahala, hobekuntza txikiak sumatzen hasiko gara: atzerrian ziren aditu batzuk itzultzen dira (Barandiaran, esaterako), labar arteari dagokionean, euskal ondarearen zati garrantzitsua osatzen duten aztarnategi berriak topatzen dituzte (Altzerri, 1956; Ekain, 1969; Erberua, 1973) eta beste asko induskatzen dira (Lezetxiki, Aitzbitarte IV, Los Husos, Olha 2). Indusketa hauetako askotan Barandiaranen ikasleak arituko dira, pixkanaka, arkeologiaren eremuan trebatzen

---

<sup>13</sup> Harrizko tresneria objektu desberdinen presentzia edo faltaren arabera sailkatzean datza sistema honek.

<sup>14</sup> Zuzendaria Julio Martínez Santa-Olalla arkeologoa eta falangista izango da.

doazen heinean. Arkeologoen generazio berri honetan izen hauek topatuko ditugu, besteren artean: I. Barandiaran, J. Altuna, J. M. Apellániz, J. M. Merino eta A. Llanos (Arrizabalaga, Iriarte, 2011).

Guzti honetaz gain, 40. hamarkadan sortutako “Aranzadi” eta *Principe de Viana*-k bultzada handia jasoko dute momentu honetan eta gainera, erakunde berriak agertuko dira, Arabako Arkeologia Institutua 1966an, esaterako. Hurrengo urtean, Kantauri isurialdeko Neanderthalen asentamendurik esanguratsuena dena aurkitzen da (Axlor). Azkenik, 1974. urtea bereziki garrantzitsua izango da, Burgoseko Atapuerca aztarnategi-multzoan (*Sima de los Huesos*-en, zehazki) lehen giza aztarnak topatzen baitira (Della Fina, 2009).

### 3.3. H, I, J eta K liburukak

Liburuaren analisia:

H: Bóveda. C. Sociales (Equipo Aula 3, 1990)



7. irudia: H liburuaaren pare bat orrialde, baliabide grafiko desberdinen adibideekin. Iturria: norberak egina.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako liburua dugu hau. Halere, ikasleen adina (11 urte), aurreko *Bachillerato elemental*-eko (hots, Bigarren Hezkuntzako) ikasleen berdina dela kontuan izanik, salbuespen gisa liburu hau aztertzea erabaki da. Gaiaren sarrera orrialde osoko irudien bidez egiten da, ikasiko dituzten edukien laburpenarekin batera. Gainera, koloretako argazkiak azaltzen dira lehen aldiz: labar artearen kolore marroixkak eta gorrixkak edota tresnen material ezberdinen testurak nabaritzeko parada eskaintzen du honek. Marrazki, argazki, testu eta ariketak tartekatzen ditu<sup>15</sup>. Guzti honetaz gain, informazio gehigarria eta hitz-gakoak atxikitzen dira koloretako laukitxoetan. Gaiaren amaieran, errepasorako ariketa gehigarriak txertatzen dira hausnarketa moduan, haien artean, *Altamira*-ko margoen inguruko eztabaida bat sortzeko proposamena.

Historiaurrearen edukiari dagokionez:

- Hasiera 2,5 milioitan kokatzeaz gain, Paleolito, Neolito eta euren baitan dauden garai/kultura desberdinen kronologia zehatza ematen du.
- Neanderthal “arrazaren” eta *Cro-Magnon* gizakiaren agerpen datak ematen ditu (100.000 aldean Neanderthal, 35.000 *Cro-Magnon*).
- “Iraultza Neolitikoa”-ren aipamena egiten da hemen ere, honekin lotuta, produkzio ekonomiak ekarritako aldaketa sozialak deskribatzen direlarik: gizartearen konplexutasuna, “klase sozialen” agerpena (gerlariak, “erlijio gizonak”), lanaren banaketa sexuaren eta adinaren arabera...
- Ez da megalitismoaren inguruko aipamenik egiten.

### I: Gizarte Zientziak (Alberdi - Beobide - Rodriguez, 1999)

Aztertutako liburuen artean, euskaraz idatzitako lehen liburua da hau. Aipagarria da baita ere, liburu soil baten ordez, historiaurrea lantzen duten bi ale ditugula hizpide, liburuxkaz osatutako bilduma baten parte direnak. Lehen alean, giza-eboluzioa eta Paleolitoa azaltzen dira; bigarrenean, aldiz, Neolitoa. Testu-liburu baten ordez, lan koaderno bat da planteatzen dena, non, ariketa desberdin ugari proposatzen diren

---

<sup>15</sup> Adibidez, kronologiaren harira, matematikako buruketak egitea proposatzen da edo suaren aurkikuntzaren inguruko idazlan bat osatzea, arloen arteko lana bultzatuz.

ikasgaiaren barneraketan laguntzeko: galderen bidez iristen gara informazioa eta ez alderantziz.

Lehen liburuxkari dagokionez, honako hauek dira aipatzekoak:

- Giza-eboluzioari atal oso bat eskaintzen zaio (bertan, *Ramapithecus*, Pekin-go gizakia eta *Homo erectus* aipatzen direlarik lehen aldiz).
- Kronologia 5-2 milioi bitartean kokatzen da.
- Euskal Herriko aztarnategi nagusiak biltzen dituen orrialde osoko taula bat txertatzen da.
- Amazoniako tribu garaikide batekin (Yanomamiak) alderaketa etnografikoa egiten da.
- Labar artearen alorrean, bi koba ageri dira erreferentzia gisa, Santimamiñe eta Ekain.
- Liburuxkaren bukaeran, ikerketa-lan bat proposatzen zaio ikasleari Santimamiñeko kobazuloa oinarri hartuta (indusketaren ebaketa stratigrafikoa txertatzen da bertan, ikus. 8. irudia).

Bigarren liburuxkari buruz berriz, esan:

- Neolito garaian baino, “Nekazaritza Iraultzan” eta honen ondorioetan zentratzen da. Honela, lehen atala da Neolito garaia dagokiona, hortik aurrera, historian zehar nekazaritzak izandako garrantzia azaltzen baita.
- Aurreko liburuko ideiei jarraiki, produkzio eta demografia igoera, lan banaketa, jabetza pribatua edota herrixken sorrera dira jorratzen diren elementu nagusiak.
- Amaieran, hainbat ikerketa-lan proposatzen dira, lehen liburuxkaren ildoari jarraiki (megalitismoaren inguruan, Paleolito eta Neolito Aroen alderaketa bat).



**8. irudia: I liburua erakusten duen orrialdeetako bat. Iturria: norberak egina.**


**J: Gizarte Zientziak. Geografia eta Historia (Perez - Rodriguez - Valencia - Rodriguez, 2002)**

Maketazioaren aldetik, liburu landuena da argi eta garbi: formatu, neurri eta konposaketa desberdineko irudien erabilera, ikurren txertaketa jarduera desberdinak identifikatzeko, informazio gehigarria atxikitzen duten borobilak...

Edukiari dagokionez, sarrera bat egiten da gaiari hasiera emateko, honen segidan, Jean M. Auelek idatzitako *The Clan of the Cave Bear* nobela famatuaren pasarte bat gehitzen delarik, testu honen inguruko galdera batzuekin.

Halaber:

- Kronologiaz eta datazioaz luze aritzen da: K14-aren metodoaren marrazkien bidezko azalpena, Potasio-Argonaren metodoaren aipamena eta aztarna arkeologikoen dataziorako fitxa baten adibidea txertatzen delarik.
- Giza-eboluzioaren atalean, *Homo habilis*, *Homo sapiens sapiens* eta *Homo sapiens neanderthalensis* izenak agertzen dira lehen aldiz. Honenbestez, bi espezie desberdin bezala aurkezten dira azken biak, hau da, Neanderthalak “espezie” berri bat izango dira hemendik aurrera eta ez “arraz” bat.
- Espezie bakoitzari dagokion kronologia zehaztu eta historiaurrearen hasiera data 2,5 milioi urtetan kokatzen da.
- Atapuercako aztarnategia lehen aldiz aipatzen da.
- Paleolito eta Neolito aldiei dagozkien orrialdeetan, tamaina handiko marrazkiak txertatzen dira garai bakoitzeko bizimodua irudikatuz bai eta objektu



**9. irudia: J liburuaren orrialdea. Iturria: norberak egina.**

esanguratsuenen argazki handituak gehituz (aurpegibikoak, labar artea, Venus-ak, gezi-puntak...)<sup>16</sup>.

- Errekreazio zein ardatz-kronologikoen iruzkin bat nola egin azaltzen duen koadro bat txertatzen da.
- Megalitismoaren inguruko atal oso bat ageri da, Europako zein EAE-ko aztarnen aipamenak eta argazkiak biltzen dituena.
- Ikasgaiaren errepositorako balio duen kontzeptu-mapa bat osatzea eskatzen zaio ikasleari.

### K: Espainiako Historia (Santxo - Grence, 2017)

Aztertu den liburuetan berriena dugu hau eta hala ere, aurrekoarekin alderatuta oso tarte txikia eskaintzen dio historiaurreari<sup>17</sup>.

Edukirik aipagarrienak hauek dira:

- *Homo antecessor*-a (“El chico de Gran Dolina”, zehazki), Lezetxikiko besa-hezurra eta Levantiar eskolako labar artea kokatzen dituen ardatz-kronologiko bat.
- Historiaurrearen hastapena 1,2 milioitan kokatzea (Iberiar Penintsulan gauzatutako aurkikuntza arkeologikoei jarraiki).
- Giza-eboluzioaren diagraman *Homo ergaster* eta *Homo antecessor* lehen aldiz agertzea.
- Atapuercako aztarnategi-multzoari buruzko orrialde oso bat (indusketa eremu desberdinak agertzen dituen aztarnategiaren marrazkia, “Miguelón” *Homo heidelbergensis*-aren buru-hezurra eta *Homo antecessor*-en hainbat giza-aztarna atxikiz).
- Neolitoari dagokionez, aurreko liburuetako ideien jarraipen bat nabari da (herrixken sorrera, “Iraultza Neolitikoa”-ren aipamena).

---

<sup>16</sup> Eranskinetan, irudi hauetako baten iruzkin laburra txertatu da (ikus. 34. orria).

<sup>17</sup> Kontuan izan behar dugu, 2. batxilergoko liburu bat den heinean, edukiak hauta-frogari begira lantzen direla. Historiaurrea frogatzen ez denez, gai honi eskaintako tarte oso eskasa dela (gehienetan ez da klasean landu ere egiten).

- Megalitismoari buruzko argazkiak eta erreferentziak gehitzen ditu, nagusiki EAE-ko aztarnei dagozkienak: Oianlekuko mairubaratza, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko trikuharriak eta menhirrak.
- Labarretako artearen inguruan, EAE-tik kanpo, *El Castillo*, *Tito Bustillo* eta *Altamira* aipatzen dira eta EAE-ren baitan, Xuberoako, Bizkaiako eta Gipuzkoako margoak agertzen dira: Sinhikoleko karbia-ko zaldia, Santimamiñe, Armintxe, Atxurra, Ekain eta Altxerri.

Gaiaren amaieran hainbat jarduera proposatzen ditu liburuak, guri interesatzen zaizkigunak ondorengoak dira:

- Hiru dokumentu, *Homo sp.* aipatzen duen testua (oraindik zehaztu gabe dagoen espezie hau 1,2 milioi urtetan kokatzen duena), “Excalibur” aurpegibiko ezagunari dagokion beste bat eta Menéndez Gonzálezen idatzi bat, non, lehen hominidoen jarduera ekonomikoei buruzko hipotesiak jasotzen diren (60. hamarkadako ehiztari indartsuaren hipotesia, 80. hamarkadan Binfordek bultzatutako sarraskijalearen teoria eta gaur egungo bi hipotesien bateraketa).
- Ardatz-kronologiko bat egiteko *software* desberdinak aipatzen dituen koadroa.
- Proiektu baten proposamena teknologia berriak erabiliz (Ekaingo *Second Canvas Ekain* App-a oinarritzat hartuta, Altxerriko margoen babeserako eta kontserbaziorako antzerako proiektu bat sortzeko aldarrikapena).

### Historiaurreari dagozkion aurrerapen zientifikoak:

Azken liburuan ikusi ditugun teknologia berriek, euren ekarpena egin diete ere historiaurre eta arkeologiaren alorrei. Geo-radarren bidezko teledetekzioak, sateliteen bitartez egindako argazkiek edo topografia informatikoa bezalako teknikak aztarnen eta balizko indusketa guneen aurkikuntza erraztu dute. Hortaz gain, GPS, bideo eta argazki kamera digitalak edo 3D inprimagailuak, ezinbestekoak bihurtu dira materialak dokumentatzeko, eta hortxe dauzkagu K14-a, DNA frogak eta bestelako laborategi-teknika ugari. Haiei esker, historia eten gabe berrikusten ari gara, gero eta interbentzio zehatzagoak eta zorrotzagoak egiten dira, kontserbaziorako tratamendu hobeak garatuz doaz... Eta ororen gainetik, historiaurrea jakintzagai anitzetatik edaten

duen zientzia bilakatu da, horren modan dagoen “multidisciplinar” kontzeptuari helduz (Della Fina, 2009).

Historiaurrearen alorrean emandako aurrera pausoen adibide ugarietako bat, Ötzi, 1991ean izotzetan topatutako momiaren eskutik datorkigu. K.a. 3.300ean datatua, Neolitoko artzain bezala identifikatua izan da berau, eta ez hori bakarrik, aurrerapen zientifiko zein teknologikoei esker, beste hainbat datu interesgarri jakin ahal izan dira: adin zehatza, gaixotasunak, azken bazkaria edo heriotzaren arrazoia bera.

Eta askoz haratago doa gaur egun zientzia, giza-aztarna fisikoez gain, DNA-aren genoma sekuentzi osoa aztertzer pasatuta (*Cro-Magnon*-en eta gaur egungo gizakiarekin DNA alderatzeko saiakerak egin dira, esaterako). Paduako Unibertsitatean jarduten duen Alexandra Chavarria arkeologo eta irakasle espainiarraren esanetan:

”Los nuevos métodos ofrecen una visión del pasado que hace 15 años no se tenía. Una visión que nos permite acercarnos a otros temas que no nos habíamos planteado” (Agencia EFE, 2016).

Eta jarraitzen du:

”Los nuevos métodos nos ayudan a comprender aspectos del pasado, lo cual nos acerca mucho más a la vida real de la mayor parte de la población, no solo la de gobernantes” (Agencia EFE, 2016).

Pixkana, aurrerapen zientifiko hauek Espainiara ailegatzen doaz eta euren eraginez, laborategi lanen garrantziak gora egin du. Horrez gain, landa-lanaren alorrean ere hobekuntzak egon dira, haiei esker, miaketa sistematikoak areagotu eta beraz, balizko aztarnategien bilaketa kopurua igo delarik. Indusketa berrietan, unibertsitateko ikasle ugari hartuko dute parte (A. Armendáriz, J. Mujika, X. Peñalver, T. Ibáñez, P. Etxeberria, M. J. Iriarte, A. Arrizabalaga), guztiak, J. Altunak gidatuta (Arrizabalaga, Iriarte, 2011). Honen ondorio zuzena, aurkikuntzen ugartasuna izan da<sup>18</sup>, eta nola ez, indusketa berriei lotutako argitalpenak ere bultzada nabaria izan dute (EAE-n, Munibe aldizkaria dugu adibideetako bat).

---


<sup>18</sup> Aurkikuntza hauetan esanguratsuenak iruditu zaizkigunak, 6. eta 7. eranskinetan txertatu dira.



## 4. Liburuen azterketa konparatiboa

### 4.1. Irudien kopurua eta motak

Liburu batean atxikitzen diren irudien kantitatea, mota eta batez ere, haietan agertzen dena (gaia), ezinbesteko elementuak dira eskola liburuetan historiaurreak izandako lanketa eta honen bilakaera ikertzeko orduan. Irudien erabilerak, hezkuntzaren eta historiaurrearen arloetako garapenaren inguruan hitz egiten digu, eta ez hori bakarrik, baliabide honek berak izandako bilakaera ere agerian uzteko balio du.



**10. irudia: aztertutako liburu bakoitzeko, historiaurrearen atalean atxikitako irudi mota. “T/B”-k txuri-beltzean adierazi nahi du. Iturria: norberak egina.**

A liburuak historiaurreari buruzko atalik ez duenez, azterketa B liburutik hasiko dugu. Argitalpen urtea kontuan izanik, grabatuak aurkituko ditugu soilik bertan, gehienbat Harri Aro eta Metal Aroko tresneria azaltzen dutenak. C liburuak 3 irudi besterik ez ditu, txuri beltzean agertzen diren lehen argazkiak direnak (10. irudian ikus dezakegunez); horietatik 2 labarretako arteari dagozkio<sup>19</sup>. Hemendik aurrera, labarretako artea azaltzen duten irudien kopurua nahiko altua izango da proportzioan (Frankismo garaiko liburuak salbuetsita), bestelako gaiekin alderatuta. Hala nabari dezakegu 1. taulako eta 11. irudiko “Labarretako arteari” dagozkion emaitzak behatzen baditugu. 11. irudian ere, labarretako arteari aurre hartuko dion bakarra tresneria agertzen duten irudiena izango dela ikusi ahal izango dugu, ziurrenik, tresneriak berak historiaurrea

<sup>19</sup> Zehazki, Altamirako margoenak dira. Datu hau deigarria da, margo hauen egiaztapena 1902an gauzatu zelako (26 urte lehenago, beraz) eta aurkikuntza 1879an. Historiaurrearen alorrean emandako aurrerapenak eskola liburuetan agertzen direnerako pasatzen den denbora tarte luzearen adierazle da hau.

definitzerakoan duen garrantziarekin lotuta dago hau. D liburuak, orrialde kopuruarekin gertatzen den bezala, irudi kantitate handia txertatzen du testuan zehar (10. irudiari begiratu bat ematen badiogu, berehala ohartuko gara J liburua dela kopuru hau gainditzen duen bakarra). Kopuruaren gorakada, gaien aniztasunarekin lotuta doa erabat, honela, tresneriak eta labarretako arteak protagonista izaten jarraitzen badute ere, hainbat gai berri azaltzen dira, hala nola: megalitismoa, arte higigarria, giza-aztarnak edota eszena baten lehen errepresentazioa (ikus. 1. taula).


**1. taula: aztertutako liburu bakoitzeko, historiaurrearen atalean atxikitzen diren irudien gaiak. Iturria: norberak egina.**

	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	Denera
Tresneria	8		12	3	3	1	4	2	19	2	54
Zeramika	2		1		1	1	1		1		7
Arte higigarria	2		5		1			2	1	1	12
Megalitoak	4	1	8		3	2		3	6	3	30
Aztarnategiak			1					3	5	1	10
Labarretako artea		2	12	1	2	2	5	7	4	4	39
Giza-aztarnak			3		1	1	1			4	10
Errerepresentazioak			1		5		3	12	18		39
Animali-aztarnak									1		1

Frankismo garaiko liburuek jaitsiera jasaten dute, bai irudien kopuruari dagokionez (ikus. 10. irudia) eta bai irudien gaien aniztasunari dagokionean ere (ikus. 1. taula). Hala ere, salbuespen txiki bat egin beharra dago F liburuarekin, zeinak, irudien gai aniztasunean zertxobait hobetzen duen (1. taulan ageri den moduan). Ez hori bakarrik, elementu berri bat azaltzen da liburu honetan: eszena errepresentazioa (ikus. 10. irudia). Irudi mota honek garrantzia handia hartuko du Trantsizioko eta hortik aurrerako liburuetan, hainbestearino, non, labarretako artearekin parekatzera iritsiko den (ikus. 11. irudia). F liburuko eszenen inguruan, guk ondorengo bi ideiak azpimarratu nahi izan ditugu: alde batetik, lehen aldiz kolorea erabiltzen dela marrazkiak egiterakoan (ikus. 10. irudia), eta bestetik, emakumearen bigarren mailako presentzia

irudikatzen dela (umeen zaintzan eta josten, suari beldurrez). Emakumeen presentziari azpi-atal oso bat eskaini zaio aurrerago, baita presentzia honen izaeran gehiago sakontzeko balio duen eszena baten iruzkin laburra lanaren amaieran, eranskinean.

Azkenik, Trantsiziotik gaur egun arte datozen liburuen ezaugarriak nabarmenena, irudien kopuruaren zein gaien aniztasunaren gorakada dugu<sup>20</sup>. Lantzen diren gaien artean, labarretako artearen garrantziaren jaitsiera txikia sumatzen da, honen orde, eszena errepresentazioenak gora egiten duen bitartean (ikus. 1. taula). Era berean, gora egiten duen beste gai bat aztarnategiena da (1. taulan nabaritzen da hau ere), haien argazkiekin batera, estratigrafia irudikatzen dute marrazkiak txertatzen direlarik (I eta J liburuetan, hain zuzen). Gainera, esanguratsua egin zaigu K liburuari buruz azken ideia bat aipatzea, nahiz eta grafikoetan ez islatu: teknologiaren erabilera (web-orriak, App-ak). Behar bada, hauxe dugu agertzen diren irudien kopuruaren zein aniztasunaren jaitsieraren arrazoietakoa bat (ikus. 10. irudia eta 1. taula).



**11. irudia: aztertutako liburuetan, historiaurrearen atalean atxikitzen diren irudien gaiak orotara. Iturria: norberak egina.**

## 4.2. Historiaurrearen kronologia

Kronologia dugu historiaurrearen baitan aldaketa eta gora-behera nabariena eduki dituen ataletako bat, aztarna berriak edota datazio metodo zehatzagoak azaltzen diren heinean, etengabe moldatu beharreko elementua bilakatzen baita. Horregatik,

<sup>20</sup> Azken finean, liburu guztietan osatuena baita berau, 10. irudiak zein 1. taulak argi erakusten duten bezala.

liburuetan zehar agertzen diren kronologia zerrenda edo aipamen desberdinen ikerketak, historiaurreak zientzia bezala izandako garapena jarraitzeko balio digute.

Idea honi helduz, Bibliarekiko atxikipenetik plazaratutako hipotesietatik, zientifikoki frogatutako datazio “zehatzagoetara” doan prozesu bat sumatu daiteke liburuetan. Lehen hiru liburuek prozesu horren pausoak irudikatzeko balio dute, pixkanaka, Genesian oinarritutako azalpenetatik, aurkikuntza berrien datuetan oinarritutako kronologia agertzera pasatzen baitira, 2. taulan nabaritu ahal den bezala. Honen adibide da B liburua, non, momentuko kronologia hipotetikoa plazaratzen bada ere, berriki aurkitu diren aztarna batzuek kronologia “hipotetiko” hori kolokan jarri dezaketela ohartarazten den (ikus. 2. taula).

**2. taula: aztertutako liburu bakoitzean, historiaurrearen kronologiaren inguruan egiten den aipamena. Iturria: norberak egina.**

A	Ez da Historiaurrea aipatzen, Antzin Aroa izendatzen da: 53 mende irauten dituena
B	Zehaztu gabe dago. Gizakien agerpena Kuaternarioan kokatzen da, nahiz eta frogatu gabeko Tertiario bukaerako azken aurkikuntzak aipatzen diren
C	Ez da aipatzen
D	Hipotesia jasotzen du: Paleolitoak milaka urte iraun zituen, agian ehunka milaka urte
E	Ez dago data bateraturik
F	Paleolitoa ez da zehazten, Neolitoa K.a. 4.000an hasiko litzateke
G	K.a. 600.000 historiaurrearen hasiera
H	K.a. 2.500.000 – 2.000 artean Espainian
I	5-2 milioi urte – 3.000 arte (ez da K.a. edo BP den zehazten)
J	2,5 milioi urte – 3.500 arte (ez da K.a. edo BP den zehazten)
K	K.a. 1,2 milioi urte – 2.500 arte

Kronologiaren bilakaera hau ordea ez da lineala, eta honen adierazgarri dira Frankismoko lehen bi liburuak (E eta F). Bertan, historiaurrearen datazioa eta azalpen Biblikoak josten ahalegintzen diren heinean, ez da data zehatzik proposatzen

Paleolitorako (bai ordea Neolitoaren kasuan, ikus. 2. taula). Garai honetako azken liburura jo behar dugu aldaketaren zantzuak sumatzeko, G liburura, hain zuzen. Hemen, Tanganikan topatutako *Oldoway*-ko gizonaren fosila (*Australopithecus* espezieari atxikitakoa, K.a. 600.000an datatua) aipatzen baita historiaurrearen abiapuntu bezala (ikus. 2. taula).


Hemendik aurrerako liburuetan, Afrikar kontinentean aurkitutako aztarnek zeresan handia izango dute historiaurrearen eta giza-eboluzioaren kronologia ezartzerakoan, giza espeziearen jatorria bertan kokatzen delako. Ikuspuntu honen baitan kokatu behar ditugu H, I, eta J liburuetan azaltzen diren abiapuntu kronologikoak, 2. taulan ageri direnak. Liburu berrienak, aldiz (K liburuak), K.a. 1,2 milioitara hurbiltzen du hasiera, kronologia Iberiar Penintsulako aztarnen datazioekin uztartuz. Aldaketa honen atzean, Atapuercako aztarnategian egindako indusketak ditugu, zehazki, *Sima del Elefante*-n gauzatutakoak: *Homo antecessor* baino zaharragoa den beste hominido baten aztarnak identifikatuko dira hemen (*Homo sp.*). Ikusten denez, azken eskola liburuetako kronologiaren zehaztapena hertsiki lotuta doa momentuko aztarna arkeologikoen aurkikuntzarekin.

#### 4.3. Emakumeari buruzko aipamenak

Orokorrean emakumearen presentzia nahiko lausoa da liburuetan egiten den historiaurrearen kontakizunean. Claudine Cohen-ek, *La mujer de los orígenes* liburuaren hasieran izenburu moduan erabilitako esaldiari jarraiki, emakumeek, “La mitad invisible de la humanidad prehistórica” osatzen dute (Cohen 2011: 15).

Idea honen harira, aztergai izan diren liburuen kasuan, historiaurreaz hitz egitea gizonaren historiaurreaz hitz egitea dela esan dezakegu, emakumeak ez baitu presentziarik kontakizun horretan (A, B eta E liburuak, esaterako, ikus. 12. irudia) edo izatekotan, ebidentziak aipatzera mugatzen direlako. Azken honen adibide ditugu C eta D eskola liburuak (ikus. 12. irudia), non, emakumezkoaren aipamen gehienak Venus-en eskulturatxo edota Levantiar eskolako labar artearen ingurukoak diren. Gainera, 12. irudia behatzen badugu, berehala ohartuko gara bi sexuen arteko desberdintasunak azpimarratzen dituzten aipamenak direla nagusi liburuetan. Salbuespenak, C, D eta K liburuak izango lirarteke: haietan, egiaztapenek edo aipamen “neutroek” eta berdintasuna

azpimarratzen duten aipamenek pisu handiagoa agertzen baitute<sup>21</sup>. Ondorioz, aztertutako liburuetan, emakumezkoaren eta gizonezkoaren arteko berdintasuna sustatzen saiatzen diren aipamenak oso urriak direla baieztatu dezakegu eta beraz, haietan irudikatzen den emakumearen itxura nahiko atzerakoia eta faltsua dela.



**12. irudia: emakumearen presentzia eta aipamenak aztertutako liburu bakoitzeko. Egiaztapenek, emakumearen inguruan egindako aipamen “neutroei” egiten diete erreferentzia; diferentziak, sexuen artean desberdintasuna adierazten dutenei eta berdintasunak aldiz, bi sexuen arteko parekotasuna azaltzen duten aipamenei. Iturria: norberak egina.**

Emakumearen presentziarik nabarmenena eszena errepresentazioetan ikusten da, eta hauetan ere ez da aurre-iritzirik falta: eszena hauetan, emakumea bigarren mailako irudia da, bere generoari “de facto” atxikitzen zaizkion rol-ekin lotuta (umeen zaintza, bigarren mailako jardura ekonomikoak) eta beti gizon ehiztari nagusiaren menpe. 1. eranskinean aztertuko dugun errekreazioa, J liburutik ateratakoa, planteamendu honen adibide garbia da.

Gauzak honela, emakumearen papera birplanteatzeko egin diren saiakerek ez dute inolako isladarik liburuetan. Saiakera hauetako bat, Binforden sarraskijaleen teoriarekin lotuta dator eta ondorengo ideia bultzatzen du: nekazaritza da (eta honekin batera emakumea) ekonomia eta Iraultza Neolitikoaren ardatza, “(...) no es la caza la que explica la hominización, sino otra actividad esencial para la subsistencia de la especie: la recolección (...)” (Cohen 2011: 140). Teoria honek historiaurreko

<sup>21</sup> Hemen sar genezake J liburua ere, bertan, aipamen “neutroak” zein desberdintasuna eta berdintasuna agertzen dutenak parekatuta azaltzen direlako (ikus. 12. irudia).

emakumeen inguruko ikuspuntua erabat aldatzen du, emakume aktibo, asmatzaile eta ekintzaile bat irudikatuz, emakumeen balioa indartuz eta bere ezinbestekotasuna aitortuz (nekazaritza edo animalia txikien harrapaketan, artisau lanetan). Azken finean, ekonomiaren pisua gizonezkoei soilik atxiki beharrea, emakumeen garrantzia azaleratuz.

## 5. Ondorioak

Lan honen mamia historiaurreak Bigarren Hezkuntzako eskola liburuetan izandako garapena aztertzea bazen ere, analisi honen atzean oso bestelako elementu ugari ere landu dira ezinbestean, hala nola: XIX. mende amaierako eta XX. mendeko historiaurreak berak zientzia gisa izandako bilakaera (ez bakarrik Espainia eta EAE mailan, baizik eta Europan eta bertatik kanpo emandako berrikuntza eta aurkikuntza desberdinei dagokienean), argitaratutako ikas-materialek eurek izandako garapen prozesua edota emakumezkoari egindako erreferentziak. Zentzu honetan, aurrerapen zientifikoek historiaurreak liburuetan izan duen presentzian daukaten eragina agerian geratu da lanean, hots, momentuko aurkikuntzek liburuen eguneratze mailan zeresan handia izan dutela.

Bai liburuen garapenari eta bai historiaurreak hauetan izan duen bilakaerari dagokionez, nolabaiteko “eboluzio lineal” bat sumatzen dela esan dezakegu (Frankismoko hutsunea alde batera uzten badugu). Era honetara, XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako eskola liburuetan, baliabide falta eta mundu mailan historiaurrearen arloan gauzaten ari diren teoria berriekiko ezagupen eskasa dira nagusi: irudi gutxi, datazio kronologikoak eta Biblia bateratzeko saiakerak (krezionismoaren eragina)... Salbuespen gisa, Errepublika garaiko liburua genuke, zeinak, Espainiatik kanpora begiratzen duen, Europako eta munduko gainerako herrialdeetan gauzatu diren (eta ari diren) aurkikuntza eta teoria berriei atea irekiz. Ez hori bakarrik, EAE-ko ondareari eta kulturari buruz egindako erreferentziak ugariak dira. Planteamendu honen ondorioa nabaria da liburuaren edukiaren baitan, maila zientifiko handiko liburua osatzen laguntzen baitu.

Frankismoko liburuek, Errepublika garaian hasitako joerari amaiera ematen diote, dela krezionismoaren eta Bibliaren planteamenduak berreskuratuz, dela

Espainiatik at aurrera jarraitzen duten berrikuntza zientifikoei ateak itxiz. Honela, gaur egungo ikuspuntutik erabat atzerakoiak eta logikarik gabekoak iruditzen zaizkigun baieztapenak burutzen dira. Edonola ere, esan beharra dago, garai honetako liburuek ekarpen nabariak dakartzatela baliabideen kalitateari dagokionean (kolorearen erabilera, lehen irudikatutako eszenak), batez ere, diktaduraren amaierara hurbiltzen garen heinean.

Azken urteetako eskola liburuetan, pixkanaka, kanpotik iritsitako aurkikuntza eta teoria desberdinei lekua egin zaie berriro ere, aurrerapen zientifiko eta teknologikoen eragina benetan agerikoa da, historiaurrearen inguruan dugun ezagutza zabalduz doan heinean. Liburu hauek, historiaurrearen alorrean emandako aurkikuntzarik berrienak islatzen saiatzen dira eta horretarako, geroz eta baliabide anitzagoak eta sofistikatuagoak erabiltzen dituzte (K liburuan txertatzen diren web-orrialde, App eta 3D formatuan egindako irudiak begiratu besterik ez dago). Atzean geratu dira Bibliari egindako erreferentziez beteta zein inolako irudirik gabe argitaratutako liburuak.

Bestalde, ezin dugu ahaztu hizkuntzaren alorrean emandako aurrerapena. Trantsizioaren baitan, 1979an onartutako EAE-ren Autonomia Estatutuaren harira, lehen aldiz euskaraz argitaratuko baitira eskola liburuak. Honela, I liburutik aurrerako guztiak euskaraz argitaratuak izango dira, honek suposatzen duen guztiarekin. Berrikuntza nabarietako bat euskal ondareari eskainiko zaion protagonismoa izango da, EAE-ko aztarnategi eta aurkikuntza desberdinen aipamen ugari atxikitzen direlarik (Santimamiñe, Ekain, Altxerri, Lezetxiki, J. M. Barandiaran).

Nolanahi ere, honek ez du esan nahi hobetzeko gauzarik ez dagoenik eta zentzu honetan, emakumearena da, behar bada, birplanteaketa sakonena eskatzen duen alorra. Gainerako arloetan nolabaiteko garapen eta eraldaketa nabaritzen den bitartean, emakumezkoen lanketa apenas aldatu da aztergai izan ditugun eskola liburu eta denbora-tartean (1867-2017). Bere inguruan egindako aipamen gehienak, eremu zehatzetara mugatzen dira (erlijioa, amatasuna, jarduera osagarriak), emakumezkoaren garrantzia eta esangura propioak nekez azaleratzen dituztenak. Laburbilduz, historiaurrearen lanketa patriarkal eta matxista burutzen jarraitzen dugu, benetan gertatu



zenarekin inolako zerikusirik ez duena, eta hortaz, errealitateari buruzko ikuspegi nahiko mugatua eta okerra eskaintzen diguna. Horregatik, beharrezkoa dugu emakumearen rol-en inguruan hausnarketa sakonago bat burutzea, eskola liburuetan historiaurrearen errelato ahalik eta fidelena egin nahi bada behintzat.

## 6. Bibliografia

- Aguado, P. 1934. *Curso de Historia para la segunda enseñanza*. Espasa-Calpe, Madril.
- Alberdi, M., Beobide, H., Rodriguez, J. 1996. *Gizarte Zientziak* (I eta II aleak). Elkarlanean, Donostia.
- Arenaza, J. J., Gastaminza, F. 1960. *Historia Universal y de España*. Ediciones S.M., Madril.
- Arrizabalaga, A., Iriarte, M. J. 2011. Gipuzkoako historiaurreko gizarte harrapariei buruzko ikerkuntza. *Ehiztari-biltzaileak Gipuzkoako historiaurrean*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 45-69.
- Ballester, R. 1928. *Resumen de Historia de la Civilización Española en sus relaciones con la universal*. Talleres Gráficos de la Sociedad de Publicaciones S.A., Bartzelona.
- Batzuen artean. 1989. *Gran Enciclopedia Larousse* (4. eta 18. aleak). Planeta, Bartzelona.
- Barandiaran, I. 1994. La Prehistoria. *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco*. Editorial del Pueblo Vasco S.A. Bilbo, 17-33.
- Castro, J. R. 1941. *Geografía e Historia*. Tipografía “La Académica”, Zaragoza.
- Cohen, C. 2011. *La mujer de los orígenes*. Ediciones Cátedra, Madril.
- Cortada, J. 1867. *Compendio de Historia Universal y particular de España*. Imprenta y librería de Tomas Gorchs, Bartzelona.
- Della Fina, G. M. 2009. *Atlas Ilustrado de Arqueología*. Giunti & Susaeta, Madril.
- Equipo Aula 3. 1990. *Bóveda. C. Sociales*. Grupo Anaya, Madril.
- Estévez, J., Vila, A. 2008. *Una historia de la investigación sobre el Paleolítico en la Península Ibérica*. Editorial Síntesis, Madril.

- Ortega, R., Roig, J. 1972. *Demos I. Historia Universal Antigua y Media*. Editorial Vicens-Vives, Barcelona.
- Perez, E., Rodriguez, J. M., Valencia, J., Rodriguez, C. 2002. *Gizarte Zientziak. Geografia eta Historia*. Elkarlanean, Donostia.
- Picazo, M., Viel, R. 1995. *Gran Larousse Universal* (28. alea). Plaza & Janés, Barcelona.
- Santxo, J., Grence, T. 2017. *Espainiako Historia*. Santillana-Zubia, Etxebarri.
- Zabala, M. 1908. *Compendio de Historia Universal. Edades Prehistórica y Antigua*. Establecimiento tipográfico de Jaime Ratés, Madrid.


#### Web-orrialdeak:

- Las nuevas tecnologías permiten a la arqueología estudiar otra visión del pasado, 2016, Agencia EFE, 2019ko maiatzak 03an ikusia,

<https://www.efe.com/efe/espana/efefuturo/-/50000905-2833249>

## 7. Eranskinak

Jarraian aztertuko dugun marrazkia, J liburutik ateratakoa da (*Gizarte Zientziak. Geografia eta Historia*, Perez et al., 2002), hain zuzen ere, azken urteetako baliabideen hobekuntza gehien azaleratzen duen eskola liburua baita hau. Gainera, itxura batean horren errekreazio osatua izanik, emakumearen presentzia ezin hobeto aztertzeko parada eskaintzen du, gaur egunean argitaratutako eskola liburu batean, emakumezkoak historiaurrearen alorrean duen esangura (edo esangurarik eza) ezagutu ahal izateko.



**1. eranskina: J liburutik ateratako errekreazioa, Goi-Paleolitoko kanpamendu bateko eszena agertzen duena. Iturria: norberak egina.**

Irudiak, Goi-Paleolitoko kanpamendu tipiko baten eguneroko bizitza agertzen digu, garai honetako gizakiaren ohiko bizimodua nolakoa izango litzatekeen iradokiz. Era honetan, irudiak gizarte ehiztari-biltzaileen jarduera nagusienak biltzen ditu, xehetasun handiz gainera, balio handieneko objektuak edota aztarnak formatu handiagoko argazkien bidez irudikatzen direlarik: jaurtigailu baten punta, gezi-puntak, arpoia, orratza, *Willendorf*-eko Venusa eta labarretako artea (Ekaingo zaldiak azalduz).

Baliabideen kalitate handiaz haratago begiratzen badugu ordea, sexuaren araberako lan-banaketari dagozkion hainbat elementu nahiko esanguratsuak dira. Honela, errekreazio osoaren baitan gizonezkoak duen protagonismoa ezeztatu ezina da, lehen planoan eta ekintzarik “garrantzitsuenak” gauzatuz: ehizarekin eta teknologia litikoaren prestakuntzarekin erlazioa duten jardueretan. Beste era batera esanda, adimen maila eta trebezia “altuagoa” eskatzen duten jarduerak gauzatuz eta gizonezkoari

normalean atxikitzen zaion rol-a indartuz (gizon indartsu, trebea eta komunitatearen babesle nagusia).

Honen aldean, emakumezkoa bigarren maila batean azaltzen da argi eta garbi, lehen begiratuan ezkutatuta geratzen diren ekintzetan murgilduta: larrua lantzen, josten, umeen zaintzan eta irakaspenean lanetan. Hau da, emakumezkoari oro har atxikitzen zaion rol-ari irmo jarraituz, eremu pribatura eta jarduera osagarrietara mugatuz. Era berean, haur baten esperoan dagoen emakumearen irudia adierazgarria da, giza espeziaren biziraupenerako horren funtsezkoa den zerbait, eszenaren albo batean eta inolako ekintza esanguratsurik egin gabe agertzen baita.

**2. eranskina: XIX. mendean eta XX.-aren hasieran, historiaurrearen alorrean egindako aurrerapen zientifiko esanguratsuenak. Iturria: norberak egina. Datuak: Della Fina, 2009; Picazo, Viel, 1995.**

1820	Harri Aroa, Brontze Aroa eta Burdin Aroa garaiei banaketa burutzen du C. J. Thomsenek
1848	Neandertal baten lehen buru-hezurra topatzen dute Alemanian, Neander haranean
1859	Darwinek "Bilakaeraren Teoria" garatzen du bere liburu ezagunean ( <i>El origen de las especies</i> )
1865	Paleolito eta Neolito garaiei zehaztapena J. Lubbocken eskutik, Thomsenek aurrez egindako banaketa osatuz
1884	Glaziazio fase desberdinak planteatzen hasten dira (historiaurrea kronologikoki banatzeko irizpide berri bat zabaltzen delarik)
1887	Mesolito garaia definitzen du Piettek <i>Mas d'Azil</i> kobako aztarnei jarraiki
1898	Acheul, Mousteriar, Solutre eta Magdalenaldi kulturalen segida ezarri zuen Mortillet frantziarrak
1912	Breuil abateak "Goi Paleolitoaren Azpiatalak eta bere esanahia" liburua argitaratzen du

**3. eranskina: Espainia mailan, XIX. mendean eta XX.-aren hasieran, historiaurrearen alorrean gauzatutako aurkikuntza esanguratsuenak. Iturria: norberak egina. Datuak: Della Fina, 2009.**

1832	Aizkomendiko trikuharria topatzen dute Araban (Espainia mailan aurkitzen den lehena)
1848	“Gibraltarreko buru-hezurra” topatzen da
1862	San Isidron (Madrilen) Espainia mailako lehen aurpegibikoa aurkitzen dute
1878-1903	Kantabriako hainbat kobatan margoak identifikatzen dituzte ( <i>El Pendo, Hornos de la Peña, La Pasiega, El Castillo, Covalanas</i> )
1879	<i>Altamira</i> -ko margo famatuak (eta eztabaidatuak) topatzen ditu Marcelino Sanz de Sautuolaren alabak (“Mira papa, bueyes”)
1902	Eztabaida luzeen ondoren, Cartailhac-ek (Toulouseko historiaurreko irakasle eta aditu ezagunak), lanen baliagarritasuna eta egiazkotasuna onartzen du “Mea culpa de un excéptico” lanaren bidez
1916	Santimamiñeko koba aurkitzen da. Indusketak 1918/26 bitartean burutzen dira, Aranzadi, Barandiaran eta Egurennek osatutako hirukote ezagunaren eskutik (“ <i>Los tres tristes trogloditas</i> ”)

**4. eranskina: XX. mendearen lehen erdialdean, historiaurreari eragiten dioten hainbat alorretan emandako aurrerapen zientifikoak. Iturria: norberak egina. Datuak: Della Fina, 2009.**

1932	Sedimentologiaren garapena Wadellen eskutik
1944	Palinologiaren sarrera indusketa arkeologikoetan Hyde eta Williams ingelesaren eskutik
1945-49	K14 bidezko datazioaren garapena W. Libbyren eskutik
50. hamarkada	Airetiko prospekzioaren garapena, paleoantropologiaren baitan egindako aurkikuntzak L. Leakeyren eskutik
-	A. E. Douglasssek dendrokronologiaren inguruan bultzatutako garapena, mikrofaunaren lehen aplikazioak indusketetan Chevchenko-ren eskutik

**5. eranskina: Espainia mailan eta XX. mendearen lehen erdialdean, historiaurrearen arloan ematen diren zenbait aurrerapauso. Iturria: norberak egina. Datuak: Estévez, Vila, 2008.**

1934	<i>Asociación de Amigos de Laguardia</i> sortzen da, Arabar Errioxako ondare material eta kulturalaren inguruan jardungo duena
1940	Nafarroako <i>Principe de Viana</i> erakundearen txanda
1945	<i>Congresos Arqueológicos Nacionales</i> deiturikoa ospatuko da, zientzia honen inguruko ekitaldi anitz antolatzen direlarik (ikastaroak, kongresuak)
1947	Gipuzkoako Aranzadi Zientzi Elkarte ezagunaren sorrera. Erakundeak natura aitzakiatzat hartuko du bilkurak, mintegiak edota irtenaldi txikiak egiteko, beti ere, arkeologia eta historiaurrearekin erlazioatuak
1955	Letren eta Filosofiaren fakultatean derrigorrezko ikasgaia bilakatzen da historiaurrea

**6. eranskina: Espainia mailan eta XX. mendearen bigarren erdialdean, historiaurrearen arloan gauzatutako aurkikuntza esanguratsuetako batzuk. Iturria: norberak egina. Datuak: Della Fina, 2009.**

1979	<i>Pinilla del Valle</i> -ko aztarnategiaren aurkikuntza
1992	“Miguelon” <i>Homo heidelbergensis</i> -aren buru-hezurraren topaketa Atapuercan
1994	Atapuercan baita ere, <i>Homo antecessor</i> espezie berriaren identifikazioa eta Asturiaseko <i>La Covaciella</i> -ren aurkikuntza
1995	Kantabriako <i>La Garma</i> kobazulo-multzoaren topaketa

**7. eranskina: Trantsizio garaitik gaur egun arte, Euskal Herrian aurkitu edota berriro induskatutako aztarnategietako batzuk biltzen dituen zerrenda. Iturria: norberak egina. Datuak: Barandiaran, 1994.**

GIPUZKOA	BIZKAIA	NAFARROA	ARABA	IPAR EUSKAL HERRIA
Aitzbitarte III Anttonkoba Amalda Ekain Labeko Koba Oianleku Torre	Arenaza Coto Basero Kurtzia La Cabaña Laminak Lumentxa Santa Katalina	Abauntz Alto de la Cruz Berroberria La Peña Marañon Portugain Zatoia	Atxa El Montecillo Fuente Hoz La Hoya Los Llanos Montico de Charratu San Juan ante Portam Latinam Sorginetxe	Arancou Azconzilo Gatzarria Ithé Olha 2 Sohandi